

Funtsezko baliabideak

- Gure zerbitzua leku finko batean kokatuta dago, beraz lokal bat beharrezko elementua dela esan dezakegu bertan zerbitzua martxan jartzeko.
- Beste elementu nagusietako bat elektrizitate sarrera edo korrante ugari izatea da.
- Lehenik eta behin takilla batzuk jarriko ditugu mailetak edo gauza pertsonalak gorde ahal izateko, eta takilla bakoitzean gailu elektronikoak kargatzeko ahalmena ematen du elektrizitate sarrera ugari izateak. Zer esanik ez, takilla bakoitzaren giltzak behar izango ditugula.
- Musika ekipamendu bat ez zen batere gaizki etorriko, honen bidez, bezeroak toki goxo batean sentituko direlako, “etxean bezala” esaten den moduan.
- Negurako, kalefazio bat jartzea beharrezkoa ikusten dugu.
- Wifia edukitzea ere oso garrantzitsua da. Gure lokalera datozenean, jendearekin wifi bidez komunikatu ahal izateko.
- Mugikorrek kargatzen ari diren bitartean (takillan usteaz gain) sofa batzuk egongo dira, beraz altzari batzuk izatea hau bete ahal izateko beharrezkoa da.